

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 288/2019 Erabakia, maiatzaren 3koa. Onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2019rako enplegu publikoaren eskaintza

Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legeak 23.1 artikuluan, azaroaren 7ko 16/1997 Legeak emandako idazkeran, xedatutakoarekin bat etorritik, "Administrazio Publiko bakoitzeko langileekin bete ezin diren giza baliabideak, hots, aurrekontu-izendapena dutenak, enplegu publikorako eskaintzaz beteko dira"

Aurreko hori aplikatuz, Foru Gobernu Kontseiluaren abenduaren 12ko 750/2017 Erabakiaren eta abenduaren 11ko 695/2018 Erabakiaren bidez, Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren 2017 eta 2018rako enplegu publikoaren eskaintzak onetsi ziren.

Hautaketa prozesuen arrazionalizazio eta eraginkortasun arrazoiengatik, eskaintza horiek batera gauzatuko dira hautaketa prozesuko deialdi bakar baten bidez.

Hautaketa prozesuak arautu behar dituzten oinarri orokorrek, zeinak Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren otsailaren 15eko 82/2019 Foru Aginduen bidez onetsi baitziren, haien 1,4 apartatutan ezartzen dutenez "Deialdian jasoriko plazen kopurua handitu ahal izango da baldin eta onesten bada 2019ko Enplegu Publikoko Eskaintza, eskala, azpieskala eta klase bereko plazak barnean hartzen dituenak, eskabideak aurkezteko beste epe bat ireki behar izan gabe. Horretarako, 10.2.2. oinarrian aipatzen den oposizio faseko lehenengo ariketarako, edo ariketa bakarretarako hala badagokio, deialdia argitaratu aurretik, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak txosten bat egingo du, non zehaztuko baita hornitu behar diren plaza hutsen kopurua. Txosten hori dagokion epaimahai kalifikatzaileari helaraziko zaio, eta berariazko publikizitatea emango da baldin eta deitutako plaza kopurua aldatzen bada."

Otsailaren 18an, Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren Saileko diputatuaren 93/2019, 94/2019 eta 95/2019 foru aginduen bidez, onespena eman zitzaizen zerga ikuskatzaile laguntzaile, albaitari eta administrari kategorien deialdiei.

Plaza hutsen egoera aztertu da, kontuan hartuz plaza kopurua handitu egin ahal izango dela, egiaztatu da beste bi lanpostu hutsik geratu direla zerga ikuskatzaile laguntzailearen kategorian, beste bat albaitarienean eta lau administrarienean.

Eraginkortasun arrazoiek gomendatzen dute deitutako plaza kopurua handitzea, lehendik jasotako plazei lanpostu huts berriak erantsiz.

Beste aldetik, orain abian diren hautaketa prozesuak oraindik ez dira iritsi 10.2.2 oinarriak aipatzen duen oposizio faseko lehenengo ariketaren, edo hala badagokio ariketa bakarrenen, deialdia argitaratzera; hortaz, badira eraginkortasun arrazoiak gomendatzen dutenak deitutako plaza kopurua handitzea, lehendik jasotako plazei lanpostu huts berriak erantsiz.

Langile berriak sartzeko aurrekontuan dauden mugei dagokienez, adierazi behar da ezen enplegu publikoaren eskaintza hau osatzen duten plazak zenbatuko direla 2019ko ekitaldiari dagokion giza baliabideak berriztatzeo tasatik eratorritako plazen gehienezko mugaren ondorioetarako.

Nola ez den onetsi Estatuaren 2019rako Aurrekontu Orokorren Legea, Konstituzioaren 134.4. artikuluan jasoriko xedapena aplikatuz indarrean da Estatuaren 2018rako Aurrekontu Orokorren urtarrilaren 3ko 6/2018 Legea, zeinetatik eratorzen baita berritzatzeko nahikoa tasa dagoela gauzatzen ari diren deialdietako plaza kopurua handitzeko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostenaren arabera.

Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bateratuak, zeina urriaren 30eko 5/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen, bere 37.1.1) artikuluan jasoriko negoziazioa egin ondoren ordezkariak duten sindikatuarekin, erabaki honen xedea da onestea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren enplegu publikoaren 2019rako eskaintza, zeinetan zazpi plaza huts sartzen baitira; hain zuzen ere, aurrekontu zuzkidura duten eta zerbitzu publikoak ondo funtzionatzeko betetzea luzaezina dela jotzen diren lanpostu hutsak.

Arabako Lurralde Historikoko Aurrekontua Gauzatzeari buruzko Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorriz, aztertu da Kontuhartzailatza eta Kontrol Zerbitzuak eman duen aurreziako fiskalizazioaren aldeko xx/2019 zenbakiko txostena.

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak hala proposatuta eta bat etorriz ondoren aipatzen diren foru dekretuek ezarritakoarekin: Arabako Foru Aldundiaren Sailak zehazten dituen diputatu nagusiaren uztailaren 3ko 132/2015 Foru Dekretua, Funtzio Publikoaren Arloko Eskumenak ezartzen dituen Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, eta funtzio publikoaren gaietan eskumena duen sailaren egitura organikoa eta funtzionala onesten duen otsailaren 9ko 10/2016 Foru Dekretua, hau

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Onespina ematea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorren zerbitzura dauden funtzionarioen eta erabaki honen eranskinean jasotzen diren plazen 2019rako enplegu eskaintzari.

Bigarrena. Beste 2 plazaz handitzea Administrazio Bereziko eskalako Zerbitzu Berezien azpieskalako Egiteko Berezien klaseko 4 plaza –zergak ikuskatzea (zerga ikuskatzaile laguntzaila), A1 azpitaldea– betetzeko deialdia, zeina otsailaren 18ko 95/2019 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen; hortaz, hemendik aurrera 6 plaza izango dira. Hona hemen nola banatuko diren bi plazak:

- 1 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datarik gabeko 3. hizkuntza eskakizunarekin.
- 1 plaza barne sustapeneko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizunarekin.

Hirugarrena. Beste plaza 1ez handitzea Administrazio Bereziko eskalako teknikarien azpieskalako goi-mailako teknikarien klaseko 4 plaza –albaitaria, A1 azpitaldea– betetzeko deialdia, zeina otsailaren 18ko 94/2019 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen; hortaz, hemendik aurrera 5 plaza izango dira. Plaza hori sistema irekiko txanda orokorrean beteko da, eta derrigortasun datadun 3. hizkuntza eskakizuna izango du.

Laugarrena. Beste 4 plazaz handitzea Administrazio Orokorreko eskalako administrariaren azpieskalako 79 plaza (C1 azpitaldea) betetzeko deialdia, zeina otsailaren 18ko 93/2019 Foru Aginduaren bidez onetsi baitzen; hortaz, hemendik aurrera 83 plaza izango dira. Hona hemen nola banatuko diren lau plazak:

- 1 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datarik gabeko 2. hizkuntza eskakizunarekin.
- 3 plaza sistema irekiko txanda orokorrean, derrigortasun datadun 2. hizkuntza eskakizunarekin.

Bosgarrena. Aipatutako eranskinean derrigorrezko hizkuntza eskakizuna duten plazak zehazten dira, eta nahitaezkoa izango da betekizun hori betetzea plaza eskuratzeko.

Seigarrena. Argitaratzea erabaki hau eta bere eranskina ALHAOn, eta haren laburpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian.

Gasteiz, 2018ko maiatzaren 3a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR

Funtzio Publikoko zuzendaria

ADOLFO LANDER VERA

ERANSKINA									
TALDEA	ESKALA, AZPIESKALA, ETA KLASEA	PLAZA	SISTEMA IREKIA		BARNE SUSTAPENEKO SISTEMA			GUZTIRA	
			TXANDA OROKORRA		TXANDA OROKORRA				
			DDHE	DDGHE	DDHE	DDGHE			
A1	221	ZERGA IKUSKATZAILE LAGUNTZAILEA	--	1	1	1	--	2	
A1	211	ALBAITARIA	1	--	--	--	--	1	
C1	12	ADMINISTRARIA	3	1	--	--	--	4	
			4	2	1	--	--	7	

LABURTZAPENAK:

DDHE: DERRIGORTASUN DATADUN HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

DDGHE: DERRIGORTASUN DATARIK GABEKO HIZKUNTZA ESKAKIZUNA

ESKALAREN KODEAK:

12: ADMINISTRAZIO OROKORRA - ADMINISTRARIAK

211: ADMINISTRAZIO BEREZIA - TEKNIKARIAK - GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

221: ADMINISTRAZIO BEREZIA - ZERBITZU BEREZIAK - EGITEKO BEREZIAK